

16. Conclusions / Ondorioak / Conclusiones

Bidean dauden datazioek, katekin eta auditoriekin batera, Iruña-Veleiako grafitoak egiazkoak direla erakutsiko digute

Gasteizen arrakasta handiz egindako Iruña-Veleiari buruzko I. Nazioarteko Biltzarrak helburu argia izan du: jadanik lau urtez luzatzen ari den polemika hau argitzen laguntzea. Horretarako, Aldundiaren Aholku Batzordeak erabili nahi izan ez zituen, eta, horrelako gaia hau zientifikoki argitzeko ezinbestekoak diren hiru arloetan sakondu da: *datazioak, kata kontrolatuak eta auditoria arkeologikoak*. Eta horrez gain, noski hizkuntzalaritzaz eta beste zenbait arloz eztabaida zabala egon da.

Hona hemen Biltzarrean ateratako ondorioak:

1. Indusketa ondo egin da. Lurmenek erabilitako indusketa sistema Harris Matrix izan da eta beraz auditatu daiteke grafitoak esandako garaikoak diren argitzeko. Edward Harrisek hemen egondako 4 egunetan Eliseo Gil eta Idoia Filloyrekin egon da hainbat gauza argitzeko, indusketa bisitatu, estratigrafien jatorrizko datuen koadernoak eskatu (Adituen Batzordeak hauetako bat ere ez zuen egin), eta gaian sakondu ondoren, ez du zalantzarik erakutsi: estratu guztiak ondo dokumentatuta daudela eta beraz, grafitoak esandako garaikoak dirudite.

Hala ere auditoria luze eta zabal batek berretsi beharko luke hau, eta ez Lurmenen auditoria soilik, Nuñez jaunak egindako lanaren auditoria ere egin beharko litzateke.

2. Proben zaintzaren katea hautsi da. Aldundiak gaia Epaitegira eramatea erabaki zuen egun berean ostrakak Epaitegiaren esku utzi behar izan zituen. Lau urte hauetan alderdietako batek gorde dituzenez, proben zaintza katea hautsi egin da. Herrialde gehienetako justizia sistemek ez lukete horrelako egoerarik onartuko eta epaiketa bertan behera utziko lukete.

3. Ikonografia eta idazkun gehienak koherenteak dira. Arlo helenistiko, grekoerromatar, paleokristau eta eguneroko bizitzari buruzko idazkun eta marrazkietan ez da faltsukeria adieraz lezakeen gauza nabarmenik aurkitu. Eta gauza ezezagun gehienak 19 txostenetan arrazoitu dira.

4. Kata kontrolatuak ez dira egin. Indusketa eremuan ez da kontrol katarik egin, nahiz eta balizko iruzur arkeologikoetan sarritan erabiltzen den teknika izan. Adituen Batzordeak uko egin zion egiteari.

5. Madrilen egiten ari diren datazioak hasieran egin behar izan ziren. Gaur egun *Instituto de Patrimonio Cultural* erakundearen Epailearen aginduz egiten ari diren datazioak, Aldundiak erabaki bat hartu baino lehen egin behar izan ziren. Uste dugu, laborategi honez gain, grafitoak datatzeko beste 2-3 laborategi beharko lirateke, bestelako teknikak erabiltzen dituztenak, emaitzei buruz zalantzarik egon ez daitezkeen. Sei hilabete barru emaitzak jakingo ditugu.

6. Hezurretako idazkunak noizkoak diren jakin dezakegu erraz. Hezurak datatuz gero, horietan egindako grafitoak noizkoak diren jakin daiteke, urte tarte handi batekin bada ere, idazkunak hezur fresko edo zaharretan modu oso ezberdinez egiten direlako. Hezur bakoitza datatzeak 300 euro baino ez du balio.

7. Grafitoek euskara hizkuntza egonkorra izan dela frogatu dute. Grafitoek erakusten diguten euskararen egonkortasunak aurrerakuntza handia ekarriko du euskara historikoaren ikerketan eta ez dugu gure unibertsitateetan orain arte erakutsi diren kontzeptu batzuk aldatzeko beldurrik izan behar (artikulua...), datazioek grafitoak egiazkoak direla frogatzen digutenean.

8. Zeinu iberiarren agerpena logikoa da. Idazkunetan agertutako zeinu iberiarrek penintsulan aurkitutako beste zenbaitzuekin harreman eta jarraikortasuna erakusten dute.

9. Orain arte 19 txosten eta irizpenek grafitoak egiazkoak direla berretsi dute: Txillardegia, Edward Harris, Martin Elexpuru, Hector Iglesias, Jean-Baptiste Orpustan, Carmen Fernandez, Emilio Illarregi, Antonio Rodriguez Colmenero, Ulrika Fritz, Koenraad Van den Driessche, Mikel Albizu, Joaquin Baxarias, Luis Silgo, Roslyn, M. Frank, Miguel Thomson, Antonio Arnaiz, Eliseo Gil eta Idoia Filloyren txostenak. Horiez gain, zendutako Henrike Knörren iritziz ere egiazkoak dira.

10. Aholku Batzordeak ez zuen beharreko lan bat ere egin. Batzorde honek ez zuen indusketa bisitatu, ez zituen arkeologoak galdekatu, ez zuen informazio gehigarri eskatu, Nuñezek pasa den 23ko bisitan aitortu zigunez, ez zituen stratigrafiako koadernoak kontsultatu eta txosten partzialetan oinarritu zen. Eta, txarrena, ez zituen bertako bi kideek (Gil eta Perring) eskatutako kata kontrolatuak onartu eta beste batek (Gilek) eskatutako 100 grafitoen datazioak ere onetsi, grafitoak egiazkoak ala faltsuak ziren ebastezko ezinbesteko teknikak zirenak.

Henrike Knörrek esandakoa irudikatuz, Iruña-Veleia etxe bat balitz, datazioak zimentazioa liriateke, kata kontrolatuak beheko solairua, auditoriak 1.a, historia 2.a, hizkuntzalaritza 3.a... Beraz, Aholku Batzordeak etxea teilatutik hasi zuen, eta horregatik gaude hemen, lau urte pasatu ondoren, hasieran bezala, Eliseo Gilek eskatutako baina onartu ez ziren datazioak ez direlako egin.

Datazioek dute hitza.

Arabako Iruña Argitzeko Batzordea
Euskararen Jatorria
2012ko azaroa

Las dataciones en curso, junto con las catas y auditorias nos aclararán la veracidad de los grafitos de Iruña-Veleia

El I. Congreso Internacional de Iruña-Veleia celebrado con gran éxito en Vitoria-Gasteiz ha tenido un objetivo claro: ayudar a esclarecer definitivamente esta polémica que se alarga ya cuatro años. Para ello se ha profundizado en las tres vías que no quiso utilizar la Comisión Asesora y que son imprescindibles tomar en cuenta en este tipo de situaciones: *las dataciones, las catas controladas y las auditorias arqueológicas*. Además también se ha debatido sobre temas de lingüística y otras disciplinas.

Estas son las conclusiones recogidas en el Congreso:

1. **La excavación se ha realizado correctamente.** El sistema de excavación utilizado en el yacimiento por el anterior equipo de Lurmen ha sido el sistema de Harris Matrix y por tanto se podría realizar una auditoría arqueológica y saber de esta forma si el trabajo arqueológico de Lurmen fue correcto o no. Edward Harris, durante los 4 días que ha estado entre nosotros se ha reunido con Eliseo Gil e Idoia Filloy para aclarar bastantes dudas, ha visitado la excavación, les ha requerido el cuaderno que recoge los datos originales de las estratigrafías (la Comisión Asesora no hizo ninguno de estos trabajos), y tras profundizar en el tema, no ha tenido ninguna duda: todos los estratos están bien documentados y por lo tanto parece evidente que los grafitos son de la época detallada en su día.

De todas maneras una extensa auditoría debería confirmar esto, y no solo del trabajo de Lurmen, también del trabajo realizado por el Sr. Nuñez.

2. **Se ha roto la cadena de custodia de la pruebas.** En países como Estados Unidos u otros muchos, no habría hoy día ningún juicio como el que pesa sobre Lurmen ya que no es correcto que en un juicio una de las partes, en este caso la Diputación Foral de Alava, tengan la custodia de los elementos probatorios en sus manos. Con ello se rompe la cadena de custodia y queda la otra parte en total indefensión.

3. **La iconografía y la mayoría de los grafitos son coherentes.** En los grafitos y dibujos sobre el mundo helenístico, el mundo grecorromano, el contenido paleocristiano, la vida cotidiana y las actividades lúdicas, no se ha encontrado ningún elemento que se refiera a una posible falsificación. Y la mayoría de los elementos desconocidos se han razonado en los 19 informes.

4. **No se han realizado catas controladas.** En el yacimiento no se han realizado catas de control a pesar de ser una técnica adecuada en los casos de supuesta falsedad de objetos arqueológicos. La Comisión Asesora se negó expresamente a ello.

5. **Las dataciones que se están realizando ahora en Madrid se deberían haber realizado al principio.** Las dataciones que están en marcha hoy día en el *Instituto de Patrimonio Cultural* de Madrid se deberían haber realizado antes de que la Diputación tomara ninguna decisión. Creemos que es necesario contar con un segundo o tercer laboratorio que tengan otras técnicas de arqueometría diferentes al del microscopio de barrido para que no haya ninguna duda de los resultados obtenidos. Sabremos los resultados dentro de seis meses.

6. Los grafitos sobre hueso son fáciles de datar. La datación de los grafitos realizados en huesos también se pueden aportar datar por métodos específicos el momento en el cual se realizaron. Mediante técnicas de bajo coste más baratos existe la posibilidad de certificar la antigüedad de las incisiones y conocer en que momento se realizaron estos grafitos. Datar cada uno de los huesos no cuesta más de 300 euros.

7. Los grafitos han demostrado que el euskera ha sido una lengua estable. La estabilidad del euskera que demostrarían los textos en euskera de Iruña-Veleia supone un avance importantísimo en el estudio del euskera antiguo y no debemos tener miedo a tener que cambiar algunos conceptos que hasta ahora se han impartido en nuestras universidades (el artículo...) si las dataciones nos demuestran la veracidad de los grafitos.

8. Es lógico que haya signos ibéricos. Los signos íberos encontrados en los grafitos tienen una correspondencia y continuidad en la grafía íbera de la península.

9. Hasta ahora, 19 informes y dictámenes han afirmado que los grafitos son auténticos: son los informes de Txillardegi, Edward Harris, Martin Elexpuru, Hector Iglesias, Jean-Baptiste Orpustan, Carmen Fernandez, Emilio Illarregi, Antonio Rodriguez Colmenero, Ulrika Fritz, Koenraad Van den Driessche, Mikel Albizu, Joaquin Baxarias, Luis Silgo, Roslyn, M. Frank, Miguel Thomson, Antonio Arnaiz, Eliseo Gil e Idoia Filloy. Además, también en opinión del fallecido Henrike Knörr son auténticos.

10. La Comisión Asesora no realizo un solo trabajo de los que debería haber hecho. La actuación de la Comisión Asesora no fue correcta ya que no visitó el yacimiento, no interrogó a los arqueólogos, no solicitó ninguna información adicional, no estudió a fondo los cuadernos de estratigrafía originales tal como nos lo reconoció Núñez en la visita del pasado viernes 23, y se basó en informes parciales y, sobre todo, porque tampoco aceptó la solicitud de dos miembros de la Comisión (Gil y Perring) para realizar las catas controladas ni tampoco la solicitud de un miembro (Gil) de datar 100 grafitos, imprescindibles para aclarar científicamente la veracidad o no de los grafitos de Iruña-Veleia.

Escenificando lo dicho por Henrike Knörr, si Iruña-Veleia fuera una casa, las dataciones serían la cimentación, las catas controladas la planta baja, las auditorías el primer piso, la historia el segundo, la filología el tercero... Por lo tanto, la Comisión Asesora comenzó a la "casa por el tejado", y es por ello que estamos aquí, después de cuatro años, como al principio, ya que las dataciones que solicitó Eliseo Gil no se realizaron.

Las dataciones tienen la palabra.

Comisión para el Esclarecimiento de Iruña-Veleia
Euskararen Jatorria
Noviembre de 2012